

# Uztaritzeko seroren eskolen hestea



Aline **Bascans**\*  
Xipri **Arbelbide**\*\*

*20. mende hastapenean Eliza eta gobernuak gerlan ziren Frantzian. Frantzian gobernuak hartu azken erabakietan serora, fraile eta apezkeri eskola ematea debekatzea eta gero, Frantzian egoitea. Milaka joan ziren ihesi.*

*Giltza-Hitzak: Xuri-Gorriak. Laiko. Uztaritze. Hegoaldea. Ihesi. 3. Errepublika. Eskola.*

*Au début du XX<sup>ème</sup> l'Eglise et le gouvernement étaient en guerre en France. Lors des décisions prises par le gouvernement, on interdit d'enseigner aux religieuses, frères et prêtres puis, de vivre en France. Des milliers prirent l'exil.*

*Mots Clé : Blancs-Rouges. Laïcs. Ustaritz. Pays Basque Sud. Exil. 3<sup>ème</sup> République. Ecole.*

*Al principio del siglo XX la Iglesia y el gobierno estaban en guerra en Francia. Cuando el gobierno tomó las decisiones, se prohibió a monjas, frailes y sacerdotes enseñar, y después vivir en Francia. Miles tomaron el exilio.*

*Palabras Clave: Blancos-Rojos. Laicos. Ustaritz. País Vasco Sur. Exilio. 3ª República. Escuela.*

---

\* S<sup>te</sup> Elisabeth - 64240 Hazparne.

\*\* Apezetxea. F-64240. Aiherra.

Filles de la Croix edo Kurutzearen alabak, guk *Uztaritzeko serorak* deitzen ditugun kongregazioa, 1807an sortu zen. Baionako lehen etxea (Le Petit Paradis) 1828koa da. Bigarrena, gero kongregazioko zentro handienetarik izan behar zuena, Uztaritzen 1829koa.

Erran behar dugu, Frantziako Iraultzak lurperaturik utzi zuela Eliza hemen, Frantzian bezala. Hamar urte egonak ziren apezik gabe, noizean behin, gordeka agertzen ziren bakar batzu ez bada. Napoleonek boterea hartzearekin seminarioak hutsak ziren. Euskal Herrian 10 urtez apez berri bihirik ez izan ondoan, bederatzi apez izan ziren 1803tik 1812rat.

Bainan, hemen ala Frantzian, gaitzeko gorakada ezagutu zuen Elizak 19. mendean. Serorak 12.000 zirelarik 1808an, 129.000 ziren 1901an, hamai-ka aldiz gehiago mende batez.

Iparraldeari doakionaz, apez berriak, 1802tik 1811rat, hamar urtez, 9 izaitetik 131 izaitera pasatu ziren 1902-1912 hamarkadan. 897 apez berri izan ziren mende batez.

Uztaritzeko serorek gorakada bera izan zuten. 9 serora sartu ziren 1814ra arte; 142; 1894tik 1904rat, 950 serora orotara mende batez.

Serora horiekin denekin 57 etxe ideki zituzten Iparraldean. Urtean bizpahiru lauetaradino. Bi, hiru edo lau serora ziren gehienetan. Haien lana zen, eri eta zaharretaz arta hartzea, elizako lanak egitea, neskato gazteri josten eta sukaldaritza irakastea “ouvroir”-etan. Bastidan ikusten dugu beharrez ziren eriak beren etxean biltzen zituztela: horietarik zenbait kabalekin bizi ziren aintzinean. Miseria gorriak baziren beraz toki zenbaitetan. Seroren lan handiena halere haurrei katixima egitea. Haur ttipiak berriz, asiletan biltzea. Haurra nintzelarik horrela deitzen zen oraino Heletan, ibili naizen ama eskola. Bainan lan nagusia izan zuten neskeri eskola egitea: 52 eskola izan zituzten.

Zenbaitek eskola publikoaren ardura izan zuten berehala (34 herritan); beste kasu batzutan, eskola libroa edo pribatua sortu zuten (21 herritan). Eskola libroa bera publiko bilakatu zen gero 4 herritan, hain segur herriak ofizialki seroren gain emanik eskola: Santizpirita, Heleta, Baigorri eta Domin-txiren. Orotara 37 herritan eskola publikoa seroren eskutan izan da eta 14tan eskola pribatua. 51 eskola bazituzten orotara Iparralde honetan.

Eskola horietan, izan zitezen publiko ala libre, hastean segurik, bi klase mota baziren, bat frantsesez eta bestea euskaraz. 24 herritan bederen emana da hori. Donibane Lohizunen berean 3 klase ziren frantsesez eta bat euskaraz. Senperen biga euskaraz eta bat frantsesez. Gehienetan bat euskaraz eta beste bat frantsesez. Pentsatzen dut, lehenean euskaraz irakurtzen eta menturaz idazten ikasten zutela. Bigarrenean aldiz frantsesa ere ikasten zuketzen. Hazparne Elizaberrirentzat garbiki emana da: *enfants jusqu'à la première communion. Une classe mixte pour lecture et instruction religieuse*. Lehen komunioa 12 urtetan egiten zen. Publiko ala libro, eskola kitorik zen.

Elizaren indar hartze hori ez zen denen gustukoa izan. Alde batetik sinesgabeak baitziren eta horietan harginbeltzak. Bestalde, Falloux legearen ondorioz, Elizako eskoletan irakasle izateko, ez baitzen beste eskoletako diploma bera eskatua. Kongregazioko zuzendarien baimena aski zen.

Gainera, Elizak bere ikusmoldea inposatu nahi izan zuen, hala nola eskola guzietan erlisionea denek ikasi behar zuten, geografia bezala. Azkenik, orokorki, harekin akort ez zirenak errepublikarrak izanez, katoliko gehienak errepublikaren kontra agertu ziren. Gorri xurien borroka, zenbait aldiz gerla, orduan hasia da.

## 1. ESKOLETARIK KANPO

Gauzak emeki emeki hartu zituzten eskutan gorriek. 1880an kongregazio guziei manatu zieten izaiteko baimena eskatzea. Bihi batek ez zuen egin eta ondorioz 271 eskola hetsi zituzten Frantzian ondoko urtean.

Uztaritzeko serorentzat laizizatua izan zen lehena, Donibane Lohizungoa, 1881an, hain segur arrazoin horrengatik. Bizkitartean, Uztaritzeko serorak, *Conseil d'Etat* erakundeak onartuak zituen 1826-kotzat eta *d'utilité publique* ezagutgarria emana. Arrazoin berarengatik dudarik gabe hetsi zituzten, Bardoz, Santizpirita, Aldude, Uharte eta Biriatu 1844an, Itsasu 1885an. Zazpi orotara.

1886an eskola publikoak laikoan eskutan emaita erabaki zuten. Bost urte barne frailek kanpoa zuten mutikoen eskoletarik. Nesken eskolentzat 10 urteren epea hartu zuten. Epe hori beharrezkoa zen, seroren ordezkariak haxeman behar baitziren erakasle izaiteko gaizen emazte gutizelakotz. Eskola horietan ez zen katiximari ikasiko: «Jainkorik gabeko eskolak» deitu zituzten. Haurrek fedea galduko zutelako beldurrak hartu zituen eliza gizonak.

Lege horren ondorioz serorek utzi zituzten Pezaruko eskola 1886an, Arbona, Mugerre-Elizaberri, eta Zuraidekoak 1887an, Ezpeletakoa 1888an, Bidaxune, Senpere eta Ahetzekoak 1892an, Arruntzekoa 1893an, Domintxine, Bidarra, Mugerre eta Urepelekoak 1898an, Ahurtikoa 1899an, Iholdikoa 1900an, Urruña eta Gixunekoak 1902an. 22 badira hor. Donibane Garazi, Heleta, Montori, Ziburu, Santizpirita, Hiriburu, Beskoitz, Baigorri eta Landibarrekoak ez dakigu noiz... eta Hazparneri doakionaz iduri luke 1903 arte iraun duela.

Eskola publikotik kanpoa izaitzarekin eskola libroa edo Elizakoa sortu zen 14 herritan: Donibane Lohitzun, Ezpeleta, Baigorri, Itsasu, Santizpirita, Arbona, Ahurti, Gixune, Elizaberri-Mugerre, Pezaru, Zuraide, Arruntz eta Landibarren. Urruñan 1913an sortu zuten eskola libroa, aintzinekoa 1902an zelarrik laiotua izan.

Bazterrak ezitu ziren Leon XIII Erromako burulehenaren manuz, Lavignerie kardinal Baionesak katolikoei eskatu zielarik errepublikaren onartzea, Alger hirian, 1890an, militarren aintzinean egin mintzaldi famatu hartan. *Le Ralliement*.

Bainan gogortu ziren egundainokotan *Dreyfus* aferarekin. Aintzindari judu hau kondenatua izan zen, trahidore bezala. Zuzenkontra? Auzia berriz egitea eskatu zuten. Batzu alde, besteak kontra jarri, eta hauetan katolikoak, *La Croix* egunkaria buru: Frantziako kaseta antisemitena zen.

1902an gorriak nagusitu ziren aise bozketan. Combes izendatu zuten lehen ministro eta legeak zorrozki aplikatu zituen, 1903ko sartzean 10.000 eskola libro hesten zituela edo kongregazioek baimenik ez zutelakotz eskatu, edo eskatu baldin bazuten, eza eman zielakotz: eskatu zuten guziek eza izan zuten! Jules Ferry eta Leon XIII elgarren artean mintza bazitezkeen, Combes eta Pie X biak berdin integristak ziren.

1904an erabaki zuten gelditzen ziren azken kongregazio eskolak hestea, kongregazioak berak deseginak izanen ziren, azken eskola hestean. Bainan hori ez zaie gertatu Uztaritzeko serorei, behar bada eskolaz beste lanik ere egiten zutelakotz.

Eskolak hestearekin, serora etxeak ere hetsi zituzten: bedera 1901 eta 1902an; 18, 1903an; 4, 1904an; bina, 1905 eta 1906an. Lau bazituzten jadanik hetsiak 1984an. 42tan gira. Bestentzat ez dugu berririk. Iduri luke Uztaritzeko etxe nagusitik eta Hazparneko ospitaletik ez zirela joan eta ez zirela kanporatuak izan. Hetsiak izan ez ziren beste etxeak ere badira, Heleta, Senpere eta Arbonaren kasuetan ikusiko dugun bezala.

Frantzian hetsi zituzten 10.000 eskoletarik 5.800 berriz ideki ziren berehala, irakaslea «sekularisatu» zelakotz, erran nahi baita serora edo fraile arropa utzi eta kongregazioarekilako harremanak hautsi. Agerikoak segurik. Bainan oso neke izan zitzairen gordezka harremanetan izatea beren kongregazioarekin, hurbiletik barrandatuak baiziren: gutunak idekitzen zizkieten, etxea miatzen, Kongregazio-erregistroetan so egiten, delako sekularisatuak seroren zerrendatik kenduak zirenez eta abar. Badira zepoan hartuak izan zirenak, auzitegira deituak, kondenatuak eta ondorioz ez zezaketen gehiago eskolarik egin.

Serora ez ziren pundutik eskola egin zezaketen. Zenbaitek nahi izan zuten eskola egitea debekatu sekularisatuei ere, bainan Waldeck Rousseau eta Clemenceau-k gobernu buruek ez zuten horrelako debekurik onartu.

87 *sécularisée*-ren izena badugu Uztaritzeko serorentzat. Zenbaitentzat badakigu non ziren: Donibane Lohizun, Urruña, Ezpeleta, Baigorri, Izura, Santizpirita, Santandre, Beskoitz, Behaxkane (3 serora), Aiherra (1), Mugerre-Elizaberri, Atarratze. Hamabi eskola heldu da. 87 seroretarat heltzeko bazitezkeen besterik ere. Edo Euskalheretik kanpo ziren. Bi auzi aipatzen baititu *Eskualduna* kasetak, hor ikusi dugu *secularisée* bedera bazirela Arbonan eta Senperen, beste bi serorarekin azken herri honetan: bat zen eskolemaila eta beste biak ez. Hona zer dioten Arbonakoaz 1904 an:

Egun guzietan, gaixtagin handi batzuei bezala, sarjantak etxera igortzen diozkate. Berak noiz nahi deitzen dituzte, bai eta joan arazten gero, iduri ohoin batzu,

emazte ahul urrikalgarriak, beren bihotzmina iduri ez duten aski, joan arazten «juge d'instruction» delakoaren aintzinerara. Heien toki gisa baita hura!!! Arbonako serorak 3 oren pasatu zituen goizean jujearen aintzinean eta beste bi arratsaldean. Ez zen kondenatua izan eta Arbonak bere eskola atxiki zuen. Bere aldekoetarik nehor ez zela auzitegian azpimarratzen du kasetak!!!

Donibane Lohizun, Senpere eta Milafrangako seroren dei auziaz berriz irakurtzen dugu.

Beti aitzaki bera, serora hoik ez dutela beren seroragoa zinez utzia. Uztaritzeko komentuan diren paperak miatuz, atzeman dute serora ohi hoitarik batek diru puska bat ekarria zuela komentuko moltsara hor sartzean eta ez duela deus gibelerat hartu hortik ilkitzean.

Paben galdu zuen administrazioak bainan Kazaziora joan zen.

Sekularisatu serora horiek *serora ohi* bezala ekarriak dira 1903, 1904 eta 1905an seroren erregistro ofizialean. Hauentzat zen aldaketa gogorrena izan: beste serorekin bizitzen jarriak eta bet betan, mementorik gogorrenan, bakarrik gelditzen ziren, besten sustengurik gabe.

Ez dugu hemengo xifrerik, bainan Frantzia mailan 352 sekularisatu baziren oraino 1920an. Horietan 269k segitzen zuten serora. Bestek seroragoa utzia zuten.

Seroretxeak hetsi ziren gutienez, Itsasun, Sanizpiritan, Bardozen, Ahurtin, Beskoitzen, Behaxkanen, Biriatuan, Aiherran, Gixunen, Izturitzen, Donamartirin, Azkainen, Urepelen, Iholdin, Garruzen, Domintxinen, Mugerre-Elizaberrin, Pezarun, Bidarrain, Zuraiden, Arruntzen, Uharte Garazin, Landibarren, Montorin eta Ligin. Dokumentuetan «départ des Sœurs» edo zenbait urte berantago «retour des sœurs» ekarria delarik, hetsia bezala ekarri dugu serorren etxea, bai eta eskola, «secularisée» baten eskuan zelarik, hauek ez baitziren serorekin bizitzen ahal. Heldu baita 30 herritan. Beste hogoietan elizalan, eri eta zaharrekin segitu zuten serorek ala hetsiak izan ziren?

Heleta ez da ekarria ez hetsia bezala, ez eta sécularisé bezala, bainan Heletar baten ganik jakin dugu bi serora bazirela seroretxean, eliza lanak eta katixima egiteko. Eskolemailea Santamaria etxean bizi zen zibirez jauntzia. Iduriz huts gune bat izan liteke zeren eta memento batez neskak ere eskola publikoan baitziren. Erran digutenaz serora sekularisatua Hondarrabitik etorri zen eta Biarnoko Nay herrikoa zen.

## 2. MUGAZ BESTALDERA

Lekuak hustu behar izan zituzten Uztaritzeko serorek xantza bat izugarria ukan zuten: Hegoaldera joan zitezkeen. Zazpi etxe bazituzten han: Bilbo, Santurtzi, Balmaseda, Barakaldo, Sestao, Arguedas eta Tafallan. Jose Ibar-güengoitia, San Antoniko apezak deituak zituen: Liberaleri ihesi jina zelarik Baionara, hiri honetan ezagutuak zituen.

Hegoaldeko serorak ere bazituzten. Bai eta hegoaldeko neskek Uztaritzeko barnetegian. Ez ziren itsura joanen mugaz bestaldera beste serora kongregazio batzuk egin behar izan zuten bezala. Ihes lekua bazuten hor eta ongi etorria ala apezten ala jendeen aldetik. Hona nola kondatu zuten Villabona eta Casedako ongi etorria.

**Villabona 1904:** Maria Arizmendi avait fait venir des musiciens de Saint Sébastien, l'organiste de Tolosa, de sorte qu'on exécuta une messe en musique splendide. Il y eut des motets ravissants. Après la messe, bénédiction du St Sacrement précédé du chant du Te Deum. Ceci nous émut profondément, notre pensée se rapportait vers la France où les religieuses sont traitées différemment.

**Caseda 1909:** Arrivées en face de la nouvelle maison qui était tout entourée de personnes, nous descendîmes. Il y avait deux vicaires de la paroisse, huit ou neuf membres du conseil municipal, hommes, femmes et enfants qui criaient, mais avec plus de modération qu'à Milagro ! Sean bienvenidas y que estén con nosotros muchos años.

Jadanik zituzten etxeei kontra beste 18 berri sortu zituzten 1903 eta 1906 artean. Ondaroan haur ttipien asila ideki eta 300 haur bazituzten laugarren egunean. Billabona, Caseda eta Valtierran eskola. Erien artatzea eta kolejioa Villarcayon.

Arazo bat halere mintzairarena: Ondarruko euskara ez zen Uztaritzekoa eta española ere ez zekiten.

Kasu bat berezia: Uztaritzeko kolejioa bere barnetegiarekin Hondarrabira eramán zuten horretarako egokia zen etxea, Garay erreterak aurkiturik. Hemengo neskek harat joaten ziren. Gure amak urte bat pasatu zuen han: Eskola publiko zenbaitetan bazuten apezpikuen gustukoa ez zen historio liburu bat, 1907an agertua. Erreterak familiei galdetu zien haurrak eskolatik jalgi zitzaten eta orduan zen gure ama Hondarribira joan familiako serora bat baitzen Uztaritzen. Frantziako eskola anitzetan gauza bera gertatu zen. Orai, aipatzea ere balio ez lukeen orrialde bat zuten partida apezpikuek gure amak zioenaz.

Ez zuten xantza bera izan kongregazio guzietan, egunetik biharrera partitu baitziren norat joan jakin gabeen.

Etxeak Frantziako lurretan hestearen beste ondorio bat izan zen etxe berrien sortzea Argentinan. Kanada, Belgika eta Hungria Euskal Herrikoak ez zirenentzat. Argentinara joatea ez zen betetan jin ideia. Betarrameko ondolan, Igonen sortua baitzuten diosesako lehen etxea, etxe horretako apezka izana zen Mixel Garikoitz saildua bera eta serorek bazekiten Argentinako Betarramisten berri. Etxe bat Hazparnen izanez, Hazparneko misionesten Argentinan finkatzeko entsegua ere ezagutzen zuten. Angeluko serorak ere han ziren. Gainera zenbatak ez zeuzkaten han familiakoak?

1901an La Platako apezpikua Igonen pasatua zen Lurdaratekoan eta han lana bazukeela erran. Hiru urte berantago, langileak ere prest ziren joateko.

1904ko urrian hartu zuten untzia Martzellako portuan lehen 8 serorek. Beste seiak ondoko urtean La Roxelatik. Ospitale batekin hasi ziren Ramallon, eskolarekin La Platan, umexurtx-etxe batekin Buenos Airesetan. 1910an 50 ziren 9 etxerekin, gehienak eskola eta kolejoak. 1919an 76 serora dira 12 etxerekin.

Bururatzeko erran dezagun irakasle ez ziren serorak hemen berean gelditu zirela, eskolaz beste lanetan. Iduriz apezetxe, apezpikuteגי, eliza eta gaineratakoak beretu zituelarik estadoak 1906an, seroren etxeak ez zituen hunki. Ez zituzten poxulu eskoletarik kanpo. Erran behar da ere Estado Kontseiluak Uztaritzeko seroren kongregazioa ofizialki onartua zuela 1819an. Baina hori izanagatik, 1902an, eskola egiten segitzeko baimena eskatu zutelarik, eza izan zuten beste guzietan bezala.

Belokeko seroren prioreak erran dauku: “Bozkatzeko eskubiderik ere ez zuten emazteak baizik ez ginen. Deus ez ginen”. Egia da beraz eskolak kenduz geroz deus guti zirela, baina beren etxeak hor ziren apezpikuteגי, apezetxe, seminarioa eta besteak bezala, beren baliorarekin. Zergatik ez zituzten beretu?